

B

BARREN

TOKIKOM



“Badakit Otegi benetan ari dela”

Xabier Arzalluz, EAJren EBBko presidente ohia

www.elgoibarikastola.eu



**KONFIANTZAN
EN CONFIANZA**



ikastola

www.ikastola.net



ongi etorri
gurean izena
eman duzuen
guztiori
eskerrik asko!



Eskola
Iraunkorraren
Ziurtagiria

943 744441

elgoibar@ikastola.net

Kudeaketa
Kaltorea
2010

LAGUNAK KOLTZOI DENDA-TEXTIL HOGAR

▶ **KOLTZOI
ERAKUSKETA**

▶ **ARMAIRU
ERAKUSKETA
BERRIA!**

▶ **GORTINAK
NEURRIRA!**



KEYTON

masajedun butaketan %25eko deskontua



Ohe azpiko kubxetan
azken modeloak!

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



San Roke

OLDSAN

terxy

Oihana
Ohe geratrikoak

KEYTON®
Masajedun besaukiak



Elgoibarko Izarraren etorkizunari begira



2013an 50 urte beteko ditu Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek.

Elgoibar euskaldunagoa izateko sortu zen 1963an, eta horretan jardun du ordutik hona. Ikastola, gau-eskola, euskal dantzak, txistu-eskola, bertsolaritza, BARREN astekaria, Gurean Bai, Atxutxiamaiika eta beste hamaika egitasmo eta proiektu, denak ere gure herria euskaldunagoa izateko pentsatuta eta prestatuta.

Atzera begiratzen badugu hori dena da Elgoibarko Izarraren iraganeko zakuan topa dezakeguna; baina, etorkizunari erreparatzen badiogu, zer ikusten da elkartearen

ortzemugan? Zelakoa irudikatzen dugu Elgoibarko Izarra hemendik 15-20 urtera? Begiratzen dugu, baina ez dugu ezer garbirik ikusten. Eta, hain zuzen ere, horregatik emango ditugu hurrengo hilabeteak Elgoibarko Izarraren etorkizuna pentsatzen eta erabakitzen.

Baina ez dugu guk bakarrik jardungo etorkizuna marrazten. Euskara Elkarteen Federazioa den Topaguneak gidatuta, gainontzeko 95 euskara elkarteak ere horretan dihardute. Euskara elkarten mugimendua gogoeta sakon batean murgilduta dago, eta mugimenduaren etorkizuna eztabaidatzen eta erabakitzen dihardugu denon artean. Urtebeteko gogoetaren ondoren, otsailaren 26an Bilbon izango dugun Kongresuan onartuko ditugu mugimenduaren oinarriarrak (oinarriak eta helburuak). Gainera, euskara elkarten mugimenduko kide garenon arteko jai erraldoi bat egiteko ere aprobetxatuko dugu egun hori.

Bilboko Kongresuaren ondoren ekingo diogu Elgoibarko Izarraren etorkizunaren gaineko gogoetari. Orain arte egindako bidearen balorazioa egingo dugu ezer baino lehen, eta egindako bideak eman duena baloratu ondoren hasiko gara elkartearen etorkizuna erabakitzen.

Ander Soraluze
Elgoibarko Izarrako presidentea

“Euskara elkarten mugimendua gogoeta sakon batean murgilduta dago, eta mugimenduaren etorkizuna eztabaidatzen eta erabakitzen dihardugu denon artean”

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantekua: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

San Roke, 7 beheko
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 670

GRUPO
VILARCHAO

PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3.sotua 943 74 36 52 - 74 27 88

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Entzun, eztabaidatu eta ikasi!

Otsailaren 21a, astelehena
Jakoba Errekondoren
hitzaldia
19:30ean Kultur Etxeko
hitzaldi gelan

Otsailaren 22a, martitzena
Eztabaida eta Pausuak zehaztu
18:30ean Kultur Etxeko
hitzaldi gelan

[HTTP://OKILBELTZAK.BOGSPOT.COM](http://OKILBELTZAK.BOGSPOT.COM) **Okil Beltzak**

SAGARDOAREN GOXOA



Urtarrilaren 12an inauguratu zuen Karlos Argiñanok aurtengo sagardo denboraldia, eta Gipuzkoako sagardotegiek prest dituzte hamar milioi litro sagardo aurtengo denboraldirako. Hala ere, badira sagardoa etxean ekoizten dutenak ere, eta, gaur horri buruz berba egin du BARRENEK Elgoibarko gazte koadrila batekin. Eñaut Izagirre, Ibai Oiarzabal, Isaak Bilbatua, Asier Lizarralde, Hasier Murua, Julen Salaberria, Iñigo Zubiaurre eta Mikel Arosak irailean batu zituzten sagarrak, eta dagoeneko, edateko prest daukate eurek egindako sagardoa. 380 sagardo botila bete dituzte, 370 bat litro sagardo, gutxi gorabehera.

Orain dela pare bat urte Azaola baserriko sagar guztiak lurrean botata ikusi zituen Asier Lizarralde, eta orduan bururatu zitzaion sagardoa egitea. Bi urtean behin izaten da sagar urtea, eta lagunei esan zien hurrengoan sagardoa egin behar zutela. Baietz erantzun zuten haiek, eta halaxe egin dute. Asierrek gidatu du prozesua, baina koadrilakoen laguntza ezinbestekoa izan da. Azaola baserriko semea da Asier Lizarralde, eta garai batean bere osabak sagardoa egiten zuela azaldu du. Bere koadrilakoek baserri munduarekin harreman handirik ez daukate, baina ilusioz hartu zuten Asierrren proposamena.

Sagardoa nola egiten den informatu, eta lanari ekin zioten.

Iraila inguruan sagarrondoak beteta zeudela ikusi eta zapatu arratsalde baten lagunei deitu zien, sagarrak batzeko. Orduantxe hasi zen prozesu guztia, eta dagoeneko botiletan daukate sagardoa, edateko prest. Probatu ere egin dute, eta lehenengo aldia izateko ona dagoela adierazi dute. Hala ere, hurrengo urteetan hobetu daitekeela uste dute: "Azukre kantitatea neurtzeko aparailuak badaude, baina aurtengoa ez ditugu erabili", esan du Asier Lizarralde. Sagardo botilak beste hilabete batez lagako dituzte ontzen, eta akaso,

Trinitate jaietan egiten den sagardo dastatzean parte hartuko dute. Bestela, argi daukate botila horiek koadrilan edango dituztela.

Sagardoa egiteko aitzakiarekin, afari eder bat egin zuten Azaolan, trikiti eta guzti. Baserri giroarekin harreman handirik ez duten arren esperientzia polita izan dela aitortu dute guztiak, "egunerokotasunetik aldentzen den esperientzia". "Errepikatze moduko esperientzia izan da, dudarik gabe, eta gauza asko ikasi ditugu", esan dute. Sagardotegietara joatea gustatzen zaie, baina aurrerantzean Azaola bihurtuko dute lagunentzako sagardotegi.

SAGARRONDOTIK ZINTZURRERA, PAUSOZ PAUSO

1. SAGAR BILKETA

Sagarra helduta dagoenean hasten da sagar bilketa, iraila aldean. Eguraldi ona irten zen zapatu arratsalde baten batzuzten sagar guztiak. 60 bat sagarrondo dituzte Azaolan, eta guztira tona bat pasa sagar batu zituzten, hiru ordutan. Bost sagar klase batu dituzte, eta sagar guztiak hemengoak direla nabarmendu dute. "Beste tona bat inguru geratuko zen oraindik batzeko", esan du Lizarralde, baina Realak jokatzeko zuten arratsalde hartan, eta partida ikustera joan ziren.



2. DOLAREAN SAGARRAK TXIKITU ETA BARRIKETAN SARTU

Azaolan ez daukate dolarrerik, eta Zulueta Beheko baserrira eraman zituzten sagarrak traktorean hartuta. Sagarrak txikitu eta barriketan sartu zituzten, tapa itxi gabe, bestela presioaren eraginez kupela erremontatu egin daiteke. Sagardoa pare bat hilabetez laga behar da hartitzen, eta prozesua amaitzen denean jarri behar zaio tapa barrikari.



**Herri erdigunetik
100 metrora gaude**



ASTIGARRAGA
Santio Zeharra 20115
Tel: 943 552 720 / 608 143 332
rezolasagardotegia@gmail.com
www.rezolasagardotegia.com

LARRE-GAIN sagardotegia
Autobus zerbitzua badago!



Larre-gain baserría, Ereñozu auzoa
20.120 Hernani
Tel: 943 555 846



IPINTZA
sagardotegia

Santio Zeharra 12 Astigarraga
TEL 688 81 17 24
www.ipintza.com

(ASTIGARRAGA ERDIAN)

3. BOTILAK GARBITU

380 botila garbitu zituzten Azaolako askan, eta horixe izan zen prozesuko lanik gogorra. Abendu amaieran batu ziren baserrian, eta ura oso hotza zegoela kontatu dute.




4. BOTILAK SAGARDOZ BETE

Botilak garbitu ondoren, banan-banan bete zituzten guztiak. Kupelari airea kendu, eta plastikozko hodi batekin bete zituzten botilak, eta ondoren, kortxoa jarri zieten. 320 litro sagardo inguru egin dituzte.



5. DASTATZEA

Hainbeste lan hartu ondoren, azken pausoa izaten da onena: dastatzea. Estreinako aldia izateko pozik geratu dira lortutako emaitzarekin.



Mendian eta itsasoan “arduragabekeriaz” jokatzegatik izaten diren istripuen erreskateak kobratzea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak.

Bat zatoz mendiko eta itsasoko erreskateak kobratzearekin?



Ion Munin
25 urte, kamareroa

Ez dakit zer esan. Arduragabekeria handien kasuan zalantza daukat, baina hala ere iruditzen zait egokiagoa izango litzatekeela mendizaleak heztea, era horretako istripuak saihesteko. Erreskatea kobratzea baino eraginkorragoa izango litzateke ikastaroak ematea.



Mikel Agirre
37 urte, abokatua

Ez zait erabaki ona iruditzen. Larrialdi bat izan, eta gainera, gero faktura hori jaso behar izatea... Dirua batzeko neurri bat da hori. Egia da arduragabekeria ere izaten direla, baina ez zait bidezkoa iruditzen denek ordaintzea. Banan-banan aztertu behar dira kasuak.



Mikel Gabilondo
33 urte, langabetua

Gehiegizkoa iruditzen zait neurri hori. Egia da jende asko ondo preparamatu gabe joaten dela mendira, eta halakoetan, ulertzen dut neurriren bat hartzea, baina hortik orokortzera... Mendiari errespetua izan behar zaio beti, eta ezin da edonola joan.



Jose Luis Azpillaga
53 urte, irakaslea

Egokiena federatuta egotea da, baina, mendira tarteka joateko ez gara federatuko bal. Mendian kontu handiz ibilita ere gerta daitezke ezbeharrrak, baina batzuek mendiari errespetua ere galdu diote. Berandu abiatu direlako gauak harrapatu eta 112ra deitzen dutenak ere izango dira.

■ SEMAFOROA



Mintxetako pista berria txakur kaka asko egoten da: “Mintxetako pista berria txakur kakaz beteta egoten da egunero, eta paseatzera edo korrika egitera joaten garenok txakur kaka horiek ez zapaltzeko lanak izaten ditugu. Herritarrei eskatzen diet txakurrak ez eramateko pista horretara. Mintxeta inguruan, bereziki, badaude beste zelai edo berdegune batzuk, eta pista berri hori erabiltzaileentzako garbi mantendu beharra dago”



Txalo bero bat Herri Eskolako ate irekien eguna antolatu zuten: “Zelako ondo pasatu genuen Herri Eskolako ate irekien egunean! Tailerrak, karaokea, pailazoak, bazkaria, dantzak, herri kirolak... umeentzako eta gurasoentzako ekintza pila bat izan genituen, eta egun zoragarria pasatu genuen denok elkarrekin. Milla esker guraso elkarteari eta Herri Eskolako kide guztiei”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrene@igobarkolzarra.com 943 744 112

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva
Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Jenaro Garate joan da

Gotzonek agur egin zigula badira bi urte pasa. Ondoren, urtebetegarrenean joan zen Ignazio anaia ere eta arreba nagusia Anita, neure amaginarreba, gero. Azken abenduan egin zigun agur gure seme-alaben amamak eta orain, bi hilabete pasa ez direnean, Jenaro joan da gure artetik. Giza gorputzak berez dakar iraungitze data, eta guk ezin horri itzuri egin, baina bai joan direnak maitasunez gogoratu eta haien irakaspenak jaso.

Hil baino pare bat egun lehenago izan nuen osabarekin berba batzuk egiteko aukera. Estu eta maitekor heltzen zidan eskutik, nahigabeen artean lasai. Hunkigarria Pakita emazteak azken arte eskaini zion arreta eta bizi poza. Egia galanta da, gero, gizon handi baten ondoan beti egon ohi dela are handiagoa den emakumea. Eta alderantziz ere bai, dudarik gabe.

Jakin irakurgaiak sailean argitaratu zuen liburu bat eskuetan nuela hurbildu nintzaion azken bisita horretan. "Bigarren aldiz nabil irakurtzen, astiro-astiro", esan nion, eta irribarrea atera zitzaion. Gizakia maitagogoa da (nire aitoren filosofikoa) da liburuaren grazia.

Humanitate eta filosofia gaiak landu eta gero Ekonomia ikasketak egin zituen Madrilan eta gai horiei lotuta lan egin jubilatua artean. Baina bere benetako gogoia bizitzaz, justiziaz, maitasunaz... pentsatu eta pentsa araztea zen. Etika arloa jorratu izan du azken urteotan bereziki, Deustun etikako irakasle eta maisuen maisu izan den bere anaia Romanekin batera. Hark izango du zer kontaturik Jenaroren kezka eta gizakiarekiko grinaz, eta nik baino hobeto eta sakonago emango luke horren berri.

Mahai gainean ditut azken aldian hark argitaratutako bi liburu, anaia Romanen hitzurre eta guzti biak ere. Aipatu berri dudana, alde batetik, nire ustez oso interesgarria dena eta Gero etxeak 2004an argitaratu emandako *Gizakia eta...: ekonomia, politika, zientzia-etika, filosofia*, bestea.

Harrigarria da zientzia arloko zehaztasunetan ohitua den gizon batek nolako garrantzia ematen dion gizakiaren sentimentuei. Gizakia, azken batean, maitagogoa baino ez dela esateraino.

Trinkoak dira haren pentsamenduak eta laburtzen zailak, bai idatzi dituen liburuetan eta bai aldizkarietan eman dituen artikulua askotan... *Karmelen, Jakinen* eta beste batzuetan. Hobe haren

liburu eta gainontzeko idatzietara jotzea, horretaz jabetzeko.

Gizon argi, zorrotz eta sentimendu sakoneko osabaren berri eman nahi nuen, alden du zaigun honetan. Zure maitagogoa betiko iraungo du.

Angel Ugarteburu ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA


BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehieneko eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzak argitaratuko.



Ainara Sedano

K a i x o ,
Noe. Zer moduz
beste alde horre-
tan? Azkenekoz zigarro-
aren aurkako legea atera zeni-
dan mahai gainera, eta jarraitu nahi
nuke gai horren inguruan hizketan, baina beste ikuspuntu batetik.
Axola beharko ez lidakeen arren, amorrutxoia diot “txokoen” gaiari,
eta tarte hau erabiliko dut nere kexua azaltzeko.



Noemi Otegi

Ufffaaa Ainara, nabari da, bai, erretzeari utzi diozula!! la poliki-poliki erantzuten dizudan, atzetik aurrera hasita. Egia da, bai, ez zaidala inoiz suertatu gizonezko garbitzaile bat ikustea soziedade batean, eta garbi dago beraz emakumezkoak izaten direla txoko horietan zikindutako guztiak garbitzen dituztenak. Eta, jakina, hor ez da inongo protestarik sortzen! Egia da baita ere soziedadeko sukaldera hurbildu izan naizen aldiren batean nabaritu izan dudala begirada bortitz eta gogor nabarmen bat, baina badirenez emakumezkoak onartzen dituzten txokoak, ez dut inoiz ongi jakiten sukaldera gerturatu naitekeen edo ez. Hala ere, inguruan dagoen gizonezkoren batek begiradak berehala adierazten dit sartu naitekeen ala ez.

“Legerik gabeko esparruak dira txokoak nire begietara”

Azkenaldian berdintasunerako legeak, ministerioak, etabar... sortu dira. Erretzearen aurkako legea ere atera dute. Eta aplikatzen saiatzen dira, eta lortzen ez dutenean salatu egiten dute edo salatuko dute etorkizunean. Baina txokoek ez dakit zer duten; “legerik gabeko esparruak” dira nire begietara. Diruarekiko paradisu fiskalak existitzen diren bezala, legeekiko “txoko”-ak existitzen dira; legeak aplikatzen ez diren eremuak!

Txokoetara emakumeok joan gaitzeko bazkaltzera (betidanik hala izan ez den arren), baina sukaldera ezin gara inola ere sartu, eta sartuz gero, kideen gorrotozko begirada jasan behar izaten dugu. Niregatik fenomeno! Baina zer gertatzen da sukaldrea garbitzeko orduan? Barka nazatela mutil garbitzaileek, baina nik momentuz ez dut bat bera ere ezagutu. Non aplikatzen da berdintasunaren legea?

Eta gauza bera erretzearen aurkako legearekin. Bai, pribatuak direla esango duzue, eta bla, bla, bla, baina... autoetan erretzea ere debekatu dute, umeak baldin badaramatzazu behintzat, eta eremu hori ere pribatua da. Ez al dira ba haurrak txokoetara eroaten?

“Ez nuke esango legerik ez dutenik, lege propioak dituztela baizik”

Baina ez nuke esango legerik ez duten esparruak direnik, lege propioa edo estatutu propioak dituztenak baizik. Hau horrela izanda, zu libre zara txoko horretara joan edo ez joan erabakitzeko, edo noren etxera joan edo ez erabakitzen dugun moduan. Nik gustuko ditut soziedadeak; hala ere, nahiago ditut sukaldrea sartzen uzten didaten txokoak, nahiz gero sukaldatu ez. Sukaldrea lasai sartzeko eskubidea izan nahi dut, inoren begiradaren eztenkada sentitu gabe. Gero eta gehiago dira emakumeak bazkietzat onartzen dituzten txokoak; gero eta gehiago emakumeei euren eskubide eta betebeharrak aitortzen dizkieten txokoak, eta, jakina, gero eta gehiago izango dira, gizartea aldatzen ari delako. Gainerakoak, motelago izanda ere, aldatuko dira gutxinaka-gutxinaka. Etorkizuna geurea da, Ainara!

II. URTEURRENA

JOSE GALARRAGA URIA

2009ko otsailaren 16an hil zen.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak aldez aurretik.



Sostengu ekonomikoa eskatu diete euskarazko hedabideek erakunde publikoei

Etorkizunari aurre egiteko baliabide gehiago behar dituztela nabarmendu dute

Euskarazko hedabide ez publikoek deia egin diete erakunde publiko-
ei etorkizunera begira sektorean baliabide handiagoak jar ditzaten. Martitzen eguerdian egin zuten agerraldi bateratua Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean, eta BARREN astekaria ere han izan zen. Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak azaldutakoaren arabera, krisi ekonomikoak eta komunikazioaren alorrean izaten ari diren aldaketek «gogor astindu» dituzte euskarazko hedabideak, eta, egoera horri aurre egiteko baliabide handiagoak izan beharrean, laguntzak murriztu egin dizkiete. Euskal Herri osoko 80 hedabidek baino gehiagok eskatu diete administrazio publikoei sektorea indartzeko politika berria eta sostengu ekonomikoa. Diru laguntza handiagoak ez ezik, erakundeen publizitate inbertsioetan ere euskarazko hedabideek pisu handiagoa izatea eskatu dute.

Era berean, euskarazko hedabide ez publikoen sektoreak gizartean zer leku betetzen duen adierazten duten datuak eman zituen Mendizabalek:



prentsa, irratia, telebista eta Internet kontuan izanik, ehundik gora dira euskaraz lan egiten duten hedabideak. Eta, guztira, 620 langilek baino gehiagok egiten dute lan hedabide horietan. Guztien artean, 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute, eta zazpi milioi euro inguru sortu eta ordaintzen dituzte zuzenean gizarte segurantzaz eta zerga bidez.

Zabalkunde handia

2007ko abenduan CIEsek propio egindako azterketa bateko datuak eman zituen Topaguneko zuzendariak: “Euskarazko hedabideak 450.000 lagunengana iristen direla dio, eta euskaldunen %57 direla euskarazko hedabideen jarriztaile. Datu hauek guztiek erakusten dute sektore bizi eta kontuan hartzekoa osatzen dugula”.

Iratzarrik herriko erabakietan parte hartzera deitu ditu gazteak



Gazte ezkertiar eta abertzaleen mezuak gizarteratzeko helburuarekin, *Etorkizuneko ezker abertzalea eraikitzen ari gara* kanpaina hasi du Iratzarri gazte erakundeak. Heritarrek eskubideez gain betebeharrak ere badituztela nabarmendu zuten joan zen astean Elgoibarren kanpaina aurkezteko egin zuten agerraldian, eta heritarrek nahi duten herria eraikitzeko, gazteen ekarpenak funtsezkoak direla azaldu zuten, HAPO Hiria Antolatze Plan Orokorriari erreferentzia eginez. Horren harira gogorarazi zuten orain dela HAPOaren kontra alegazioak aurkezteko epea, eta aukera hori baliatzeko eskatu zieten gazteei. “Herrian badira lanean diharduten taldeak, eta horiek gure babes osoa dute”, azaldu zuen Joanes Rodriguez Gipuzkoako koordinatzaileordeak.

“Nahiz eta nagusi diren eskuineko politikek gazteen iritzia kontuan ez hartu, Iratzarriren ustez, gazteek iritzi propioa dute gizarte gaietan, erakundeek entzungor egiten badiete ere”, dio hitzez hitz prentsaurrekoan irakurri zuten agiriak. Hala, erabakiguneetan parte hartzera deitu dituzte gazteak. Informazio gehiagorako: www.eraikitzen.org edo www.iratzarri.org.

Izena **Jenaro Garate**



Jenaro Garate ekonomilari elgoibartarra hil zen joan zen astean, 84 urterekin. Besteak beste, aitzindaria izan zen ekonomiari buruzko testuak euskaraz idazten, orain dela 40 bat urte. Makroekonomiaren oinarriko arazoak luze eta sakon ikertu ostean, *Jakin* aldizkarian eta *Gero* editorialean eskaini zituen bere azterketen emaitzak. Gotzon eta Roman anaiak moduan, jesuita izan zen, bide hori gero laga arren. Hamaka anai-arreben artean zortzigarrena zen Jenaro Garate Gohartzun.

Irudia **Mus txapelketa**

Josu Zialtzetak eta Luis Berdoncesek irabazi zuten Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa. Lanbroan jokatu zituzten partidak, eta guztira, hamalau bikotek hartu zuten parte. Zialtzetak eta Berdoncesek lazko txapeldunak izan zituzten aurkari finalean, Manuel Salegi eta Pedro Garate, baina oraingoan, gazteak nagusitu ziren. Bi bikote horiek ordezkatzuko dute Elgoibar otsailaren 26an Seguran jokatu den Gipuzkoako kanporaketan, eta handik irtengo dira Euskal Herriko txapelketa jokatu duten bikoteak.



Irudia **Kontzentrazioa**

Otsailaren 13an torturaren kontrako eguna izan zen, eta horren harira, hainbat elgoibartarrek kontzentrazioa egin zuten domekan. 40 lagun inguru batu ziren Plaza Handian, "torturarik ez" lelopean.



Barrikotea egingo dute Kimetz elkartean

Kimetz elkarteak Barrikotea antolatu du otsailaren 26rako. Tinketak salgai daude dagoeneko Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan. Hogei euro ordaindu behar dira, eta menua sagardotegikoa izango da: makailao tortila, txuleta, in-txaurrak eta gazta.

Aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan

Aste Santuan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko programa martxan dago, eta interesatuek martxoaren 18a baino lehen egin behar dituzte eskaerak, Udaleko Ongizate Sailean. Informazio gehiagorako 943 741 008 telefonora deitu.

Zortzi ikastaro antolatu ditu UEUK udaberrirako

UEU Udako Euskal Unibertsitateak zortzi ikastaro antolatu ditu udaberrirako, eta Elgoibarko Udaleko euskara batzordeak diru laguntzak emango dizkie ikastarotatik parte hartu nahi duten herritarrei. Ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatuei matrikula osoa ordainduko die, eta gainerakoei, berriz, erdia. Ikastaroei buruzko informazioa nahi duenak 934 821 426 telefonora deitu dezake edo mar-keskoa@ueu.org helbidera idatzi. Diru laguntzei buruz argibide gehiago jasotzeko, berriz, Euskara Sailera jo behar da: 943 744 366.

60 urtekoen kinto bazkaria egingo dute maiatzean

2011. urtean 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 28an. Antolatzaileek 20 euroko aurrerapena egiteko eskatu diete bazkarira joango direnei, eta ondorengo kontu korronte honetan sartu behar da dirua: 3035 0007 25 0071121796. Informazio gehiagorako 943 740 779 (Mari Karmen) telefono zenbakira deitu daiteke.

Egungo egoera politikoaren gaineko mahai ingurua antolatu du Arnaldo askatu plataformak eguenerako

Mahai ingurua zuzenean emango du Elgoibarren.net-ek Internetez



Arnaldo Otegi-ren askatasuna aldarrikatzeko eta haren etxeko eta gertuko-ei babesa adierazteko sortu zuten Arnaldo askatu, politika askatu herri plataforma 2010eko udaberrian, eta helburu horiek lortze bidean, hainbat

ekintza antolatu dituzte ordutik hona. Logroñoko kartzelara egin zuten martxa izan zen azkenekoa, eta eguenerako antolatu duten mahai ingurua izango da hurrengoa. Xabier Arzalluz EAJren EBBko presidente ohia, Mariano Ferrer kazetaria, Arnaldo Otegiaren abokatu Jone Goirizelaia eta Martxelo Otamendi **BERRI**Ako zuzendaria gonbidatu dituzte, eta Hasier Etxe-



Egueneko mahai ingurua aurkezteko martitzenean eman zuten prentsaurrekoa.

berria kazetaria arituko da moderatzaile lanetan. Mahai inguruari "...eta orain zer?" izena jarri diote, eta hizlariak gaur egungo egoera politikoa eta etorkizunerako perspektibak aztertuko dituzte. Esan bezala, egunean izango da mahai ingurua, 19:00etan, Elgoibarko Herriko Antzokian, baina Internetez zuzenean jarraitzeko aukera ere izango du hala nahi duenak. Izan ere, **BARRENEK** eta Arnaldo Askatu plata-

formak zuzenean eskainiko dute, norik bere webgunean: www.elgoiBARREN.net edota www.arnaldotegi.com.

Eguenekoa, baina, ez da plataformak antolatuko duen azkeneko ekintza. Plataformako kideek martitzenean iragarri zutenez, martxoaren 26rako bertso bazkaria ere antolatu dute, Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariekin. Horren inguruko azalpen gehiago, baina, datozen egunetan emango dute.



Arnaldo Otegi babesa agertzeko bolatokian egindako elkarretaratzea.



Elkartasun argazkien kanpaina arrakastatsua.



Mikel Olaizola eta Irati Agirreazaldegi Logroñora egindako martxan.



Otegiaren askatasuna eskatzeko manifestazioa.

XABIER ARZALLUZ

“Otegik zerikusi zuzena izan du iritsi garen puntura iristeko”



Urtetan itzal luzea izan du Xabier Arzalluzek (Azkoitia, 1932) Eusko Alderdi Jeltzalean, baina beste modu batean bizi du orain politika. “Jubilatu bizitza egiten dut orain”, dio EAJren Euskadi Buru Batzarreko presidente izandakoak. Arnaldo Otegi askatu, politika askatu herri plataformak gonbidatuta, Elgoibarren izango da datorren astean, eta hori aitzaki hartuta, Otegi buruz eta gaur egungo egoera politikoari buruz mintzatu da BARREN berarekin, luze eta zabal.

Otegi “abertzale ona” dela esan zenuen behin, eta “errespetua” merezi zuela. Hautsak harrotu zituen adierazpen hark. Mantez duzu orduan esandakoa?

Bai. Abertzale osoa da Otegi, dudarik gabe. Bere garaian tiroekin ere zerikusia izan zuen, baina gero politikan sartu zen, tiroak eta kontu horiek alde batera utzita, eta ahalegin handia egin du ezker abertzale osoa bide horretara eramateko. Eta hori oso gauza ona da. Madrilgoek beti errezeloa izaten dute, jakina, eurek behin ere ez dutenez egi borobilik esaten pentsatzen dutelako gainerakoak ere gezurretan ari direla, baina nik neuk sinisten diot Otegi. Aspalditik ezagutzen dut, eta badakit egiaz ari dela, benetan ari dela.

Negoiazio mahaitik ia zuzenean kartzelara eraman zuten Otegi. Martutenen preso izan zutenean joan zinen bisitatzerara. Orain, zer esango zenioke?

Bai, orduan ere Otegik garbi zuen bide politikoetatik jo behar zela, eta zorionez, ezker abertzaleak bide hori hartu du. Eta bide berri hori hasteko orduan, eta iritsi garen lekura iristeko, Otegi zerikusi zuzena izan du. Orduan, nahiz eta Otegi oraindik kartzelan preso daukaten, nik ez dakit zergatik, bere ideiak bidea egiten ari dira, eta pozgarria dela esango niok.

Ezker abertzaleak Sortu sortu du. Estatutuetan, gainera, indarkeria oro errefusatzan due la esan du, ETArene bane. Eskatzen ziotena bete du. Zuk zeuk espero zenuen?

Ez nau ustekabeen hartu, ez. Denbora luzean jardun dute hau eta beste esaten, eta ez nau harritu. Hala ere, kezka bat baneukan: ezker abertzalea ausartuko ote zen ETAriz bizkarra eman eta bere bidea hasten. Egia esan aurrerapauso handia da, historikoa. Ezker abertzaleak emandako pausoa ez dela fidagarria esango du Rubalcabak gero, baina nik zera erantzunio niok: “Zuk zer pentsatzen duzu ba? zurekin fidatzen garela?”. Objektiboki begiraturata, gertatu diren gauzak miragarriak dira, eta hori ezin da ukatu.

Une historikoa bizi dugula adierazi dute hainbategi. Gatazka politikoa konpontzeko atarian egon gaitzeko?

Bai, egon gaitzeko. ETAK zer pentsatzen duen da kontua. Denak ari zaizkio aholkuak ematen, baina ETAK nahi duena egingo du, erakunde gogorra da eta. 40 urte egin ditu ETAK *a salto de mata* esaten dena, eta horrek lotu egiten ditu, kultura bat sortzen delako hor. Hala, nahiz eta ETAKoak izan diren batzuk, tartean Otegik berak, armak utzi eta beste bide baten alde egin, erakunde barruan izango dira bestera pentsatzen dutenak ere, zaila delako urtetako kultura horrekin haustea. Ni ETArekin ahal izan dudana bestetan bildu naiz, eta harreman handia izan nuen, batez ere Txomin Iturberen garaian, eta uste dut ezagutzen dudala jende hori. Eta garbi izan jende hori ez dela egongo besteek zer esango duten zain. Gaur egun ez dakit zer gertatzen ari den ETAre barruan, baina garbi daukat iritzi ezberdinak daukela eta horrek noizbait zatiketa bat ekarriko duela. Hori bai, ez dut uste ETAK kanpotik esaten dizkieten gauzei kasu handirik egingo dienik.

ETAK su-etena eman du, baina asko ez dira fio. Badago alderik oraingo honen eta aurreko su-etenen artean?

Su-etena beti da ona. Zenbat denborako izango den ez dakigu, baina behintzat tarte batean ez dugu atentaturik eta halakorik izango. Enpresarioak behintzat pozik daude, denbora guzti honetan ez dutelako ETAre gutunik jaso. Gogoratzen naiz ni EBBko lehendakari nintzenean ETAK su-etena eman zuela, eta orduan zuzenean hitz egin genuen ETArekin guk. Su-etan mugagabea zela zabaldu zuten orduan, baina negoziatioetan sei hilabeterako su-etena zela esan zigun guri ETAKo burua zenak. Orain zer duten buruan? Nik ezin dut hori jakin, ni ez naizelako aspaldian inorekin biltzen.

Edonola ere, badirudi beste fase batean sartu garela. Hala ere, pausoak pausoa eskatzen du, eta uste duzu Espainiako eta Frantziako gobernuak aldatuko dutela euren jokabidea?

Espainiako Gobernua badakizu zer den. PSOEek eta PPK eskutik dihardute Euskadin, baina hemendik kanpora elkarri labankadaka ari dira. Hori oso adierazgarria da. Burubelarriri eta itsu-itsu ari dira hemen ETArekin, ezker abertzalearen eta oro har abertzaleatasunaren kontra, eta borroka hori PPK gidatu du beti, biktimak erabiliaz. Hauteskunde interesengatik edo nik dakit zergatik, baina PSOE pixkanaka-pixkanaka beti makurtzen da, gainera, PPren aurrean. Sorturen kontu honetan ere, PSOE bigunago ari da, baina besteak indar guztia egiten ari dira PSOE bide gogorretara eramateko eta ezker abertzalea berriro ere legez kanpo uzteko.

Zeren beldur dira?

Ibarretzek Estatutu Berria delakoa atera zutenean hasi zen hau guztia. Erabakitze esku bidea eskatzen zuen Ibarretzek, autodeterminazioa, eta Madrilen hori entzun zutenean ikaratu egin ziren. Izan ere, Eusko Legebiltzarrean abertzaleok genuen gehiengoa, eta Madrilek arriskua ikusi zuen egunen batean abertzaleek lege proposamenen bat atera eta badoazela esateko. Beldur dira, eta direnak eta bi egingo dituzte abertzaleek parlamentuan gehiengorik izan ez dezaten. Alderdien Legeari esker lortu dute hori eragozte, eta hor ari dira.

Zuri entzunda ez du ematen Sortuk hauteskundeetara aurkezteko aukera handirik izango duenik. Zer diozu?

Zain egon beharko dugula. Auzitegi Goreneko 61. sala sartzen da hor, baina egia da Konstituzionalean aldaketa batzuk egon direla eta orain Gobernuaren aldekoek dutela gehiengoa. Hala, batzuek uste dute Auzitegi Gorenak ezeztatu egingo duela, baina gero Konstituzionalak baleko joko duela. Joku bat badabil hor. Hala ere, gauza bat dago argi. Gobernuak nahi badu erraz asko eman diezaioke bidea ezker abertzalearen alderdi be-

rri horri, estatutu garbiak aurkeztu dituelako. Sortuk, baina beti ere errazagoa zaie epaileen esku uztea kontua. Azken batean, epailek Gobernuak berak nahi duena esango dute, eta Gobernuak erabakia haiena izan dela esan ahal izango du gero.

Sortu hauteskundeetara aurkezten bada, ez litzateke harriztekoa izango EAJk udal garrantzitsu batzuk gaitzea, ezker abertzalea legez kanpo utzi zutenean bere egindako haiek, esate baterako.

Bai, Elgoibar, esate baterako.

Ez nintzen Elgoibarri buruz ari, baina nolana ere, EAJ kezkatzen du horrek?

EAJren izenean ezin dizut erantzun. Niri inork ez dit ezer kontsultatu eta ez dut inorekin hitz egiten kontu horietaz. Jubilatuta nago, eta jubilatuta bizitza egiten dut. Informatzen naiz handik eta hemendik, jakina, baina ez dut lehen bezala bizi, eta ez dakit alderdi barruan zer egosten den. Hortaz, esaten dudana neure-neurea da. Hori zehaztuta esango dizut alderdi guztiek izaten dituztela euren helburu nagusiak, eta EAJrena Euskadi askatzea dela. Baina horra iritsi baino lehen beti egoten dira beste interes batzuk, askotan horren garbiak ez direnak. Hauteskundeak irabaztea da alderdi guztien nahia, eta hori eta diru interesak sartzen direnean tartean, gauzak nahastu egiten dira. Ez litzateke harriztekoa, beraz, bai EAJ barruan eta baita beste edozein alderditan ere batzuek beste bide hori hartzea. Hori bai, garbi dago beste bide hori ez dela bide egokia. Abertzaleak baldin bagara, abertzaleak gara.

Hortaz, ez zaitu kezkatzen EAJk udalen bat edo beste gaitzea, ezta?

Ez, inondik inora. Nik uste dut denok babes-tu beharko genukeela ezker abertzalea hauteskundeetara aurkeztu ahal izatea.

Abertzaleon madarikazioa gure artean ados ez jartzea dela irakurri genizun behin. Etxekok kanpokoak baino gehiago gorroto ditugula, alegia, eta hori dela gure gaitza. Nafarroan NaBairekin gertatzen ari denak zer pentsatua eman dit.

Bai hori beti gertatzen da, baina ez pentsa

abertzaleon kontua denik bakarrik. Interes jakin batzuek itsutu egiten gaituzte, eta garbi dago gure gaitzik handiena horixe dela: gure artean ondo konpondu ezina, eta beti zaituta egote hori. Betiko kontua izan da hori. Gerra karlistetan ere halaxe zen. Bietan iritsi ziren halako geldiene batera, ez batzuek ez besteek irabazten ez zuten une batera, eta hala ere, gerran jarraitzen zuten. Eta hor has-ten dira beti traizioak eta halakoak. Nafarroan gertatzen ari dena, baina, beste kontu bat da. EAren kontua da hori. EA beheraka dihoa, eta ito beharrean dago. Orain arte, PNVrekin koalizioan aurkeztu da urte batzuetan, baina aro hori amaitu da, eta orain ezker abertzalearen bidea landu nahi du EAK. Zaila du, hala ere, ezker abertzalea aurkeztu ahal izango den ere ez dakigulako oraindik. Gainera, badirudi PNVk eta Aralarrek ez dutela ezker abertzalearekin horren tratua estua izaterik nahi oraingoz. Ikusi beharko dugu EAK zer aukeratzen duen: bere interes hutsei heldu edo lehendik hitzartuta zeuzkan akordioekiko lehial jokatu.

Urteetan lortutakoa galdu dezakete, baina, abertzaleek Nafarroan. Abertzale baten ikuspuntutik, merezi du arrisku hori hartzea?

EAK erabaki beharko du hori. Ezker abertzalea gabe hondoa joko duten beldurra dute, baina kontuz ez baldin badabilta, gauza bat egin zein bestea egin, berdin-berdin joko dute hondoa.

Herritarrok zer egin dezakegu egoera normaltzearan alde? Badaukagu zerbaiteko aukerarik?

Herritarrok botoa emateko eskubidea daukagu, eta hemen horrek balio du gehien. Abertzaleak baldin bagara, eta hemen gehienok hala gara, zentzunez jokatu behar dugu, eta botoa emateko orduan gauza bat izan behar dugu argi, beste ezerekin gainetik: abertzale-tasunak batzen gaituela. Gaur egun botoa da balio duen arma bakarra, eta geu gara arma horren jabe. Alderdi batek ikusten badu botoak galdu dituela hau egin duelako edo beste egin ez duelako, zalantzarik ez izan saiatuko dela bere jokabidea zuzentzen.

“Nik uste dut denok babestu beharko genukeela ezker abertzalea hauteskundeetara aurkeztu ahal izatea”

Politikan sinistea ere zaila egiten da batzuetan, baina zure ustez, sinisteko arrazoiak ere badaude hortaz.

Dudarik ez izan.

Brian Currinek Nazioarteko Harreman Taldea aurkeztu zuen martitzenean. Talde horren funtzioa bakegintzan lagundu eta hemengo jendearen arteko elkarrizketa aberastea dela zehaztu zuten aurkezpenean. Nazioartearen presioak ekarriko du aldaketa?

Laguntza handia izango da. Madrilak ez ditu gustuko halako taldeak; ez du bitartekariarik nahi, ez duelako konponbiderik nahi. Oso eroso daude. Brian Currin eta bere taldekideak gatazka politiko askotan aritu dira bitartekari eta eskarmentu handia dute, gurea baino gatazka gogorragoak ere ezagutu dituztelako. Madrilak, eta batez ere PPK eta PSO-Eko askok soluzio bakarra dute: Guardia Zibila, fusila, eta kartzela. Eta makurtzeko eskatuko diote ETari, eta behin makurtutakoan armak lagatzeko eta barkamena eskatzeko. Badakite arazoa hori baino sakonagoa dela, baina horixe da euren argumentua.

Biktimak aipatu dituzu lehen. Biktimek zein papel jokatu beharko lukete konponbide

prozesuan? Mina ez da sarri aurrera egiteko traba?

Biktimek errespetu osoa merezi dute, baina biktimen erakundeek ez. Mayor Orejaren asmakizunak dira biktimen erakundeak. Jendea abertzaleen kontra mobilizatzeko sortu zituzten, eta bistan da etekin handia atera dietela. Biktimek erakundeak diruz lagundu dituzte, biktima horiek nahi dituzten moduan erabili ahal izateko. Berriz esango dizut: biktimek errespetu osoa merezi dute, baina biktimen erakundeek ez, erakunde politikoak direlako, PPren politika bultzatzeko sortutako erakunde politikoak. Orain, adibidez, biktimak eskolara eraman nahi dituzte, umeen artean eztabaida sortzeko. Niri astakeria bat iruditzen zait hori, baina, jakina, biktimen kontu horri etekin handia atera diote, eta oraindik gehiago atera nahi diote.

Beste fase berri batean sartu garela dabil askoren ahotan. Gemikako Akordioa izan daiteke etapa berrirako bide orria?

Bai, niretzako horixe da bide orririk egokiena. Abertzaleok adostuko bagenu puntu batzuk, eta gero elkarrekin aurrera egiteko moduko tarteko mekanismo batzuk sortuko ba-

genitu, gertuago egongo ginake geuk nahi dugun horretatik.

Zer nahi dugu, ordea? Independentista zarela esan izan duzu zuk zeuk sarri, baina zure alderdikoei, adibidez, ez diegu halakorik entzun, ez behintzat zuri bezain ozen edo argi.

Sabino Aranaren kontra jarduten dute marxista eta progresista askok, baina Sabino Aranek gauza handia egin zuen. Euskal estatua sortu nahi zuen Sabinok, eta hori lortzeko alderdi bat sortu zuen [EAJ], hobe edo okerragoa, baina asmo horrekin egin zuen. Ikurriña eta beste hainbat sinbolo sortu zituen, guk falta genuen batasun hori sortzeko. Kontua da alderdi barruan badaudela hori posible ikusten ez dutenak, eta hori lortu aurretik beste pauso asko eman behar direla uste dutenak. Badakizu: bai, baina... Surfista asko daude alderdi guztietan, eta baita gurean ere. Baina Sabinok euskal estatua nahi zuen, eta asmo horrekin sortu zuen alderdia.

Kanpotik begiratuta, nola ikusten duzu orain EAJ?

Horri ez diot erantzungo. Zuek ikustearekin nahikoa da.



NEREA ALABA

TOPONIMIA LANAREN EGILEETAKO BAT

“Toponimia lanari esker beste Elgoibar bat ezagutu dut”



Amaia Pinacho eta Nerea Alaba, toponimia lanaren egileak.

Nerea Alaba eta Amaia Pinacho filologo arrasatearrek egin dute Elgoibarko toponimiari buruzko lana, Udalak emandako bekaren laguntzaz. Udalak herriko toponimia jaso, sailkatu, kokatu eta finkatzeko lanean dihardu, eta uda alderako Elgoibarko mapa toponimikoa kaleratzeko asmoa dauka. Dena dela, maparen behin betiko bertsioa argitaratu aurretik, mapa ikusgai jarri dute Kultur Etxeko erakusketa gelan. Otsailaren 26ra arte egongo da zabalik erakusketa, eta herritarrek mapan ageri diren toki izenei zein kokapenei buruzko ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Elgoibarko toponimia jaso duzue. Nola egin duzue lana?

Ahalik eta toponimo gehien biltzen ahalegindu gara. Horretarako, artxibo zahar-

tara jo genuen lehendabizi, Oñatiko artxibora eta baita Eibarkora ere. Elgoibarko dokumentu zaharrak ere begiratu genituen; Elgoibarri Carta Puebla eman zioe-

neko dokumentuan toponimo asko agertzen dira, esate baterako. Idatzizko dokumentuak aztertu ondoren, baserri inguruetan bizi diren herritarrekin batu ginen,

baserri eremuan toponimo asko egoten direlako. Auzo bakoitzeko bospasei lagunekin hitz egin dugu, eta gauza interesgarriak lortu ditugu. Baserri auzoetan gero eta jende gutxiago bizi da, eta inguru horietako toponimoak galdu egiten dira. Bertiko hitzak dira, jatorrizkoak, aberatsak, eta horiek biltzea oso interesgarria da.

Zer iruditu zaizue zailena?

Izan ditugu oztopo batzuk, bai. Artxiboko lana ez da erraza izan. Adibidez, XV. eta XVII. mendeko dokumentuak irakurtzea zaila egin zaigu. Garai hartako eskribauek idazten zutena ulertzea nekeza izan da. Gehienak gazteleraz alfabetatutakoak ziren, eta ez zekitenez euskaraz idazten, euskal toponimoak ere gazteleraz idazten zituzten. Gainera, dokumentu gehienak eskuz idatzitakoak dira, eta letra batzuk ulertzea ez da erraza izan. Dokumentu horiek irakurtzen ikasi egin behar izan dugu. Oñatiko artxiboko arduradunak izugarri lagundu zigun.

Honelako lan bat noiz eta nola bukatzen da?

Honelako lan bat ez da sekula amaitzen. Guk hamalau hilabeteko epea izan dugu, eta ez ditugu toponimo guztiak batu. 3.000 toponimo pasa bildu ditugu, baina ezinezkoa da herri bateko toponimo guztiak batzea. Lan hauek hasiera eta amaiera data izaten dute, eta bukatutzat eman behar dira.

“**Herritarren ekarpenak jaso nahi ditugu erakusketan**”

Zu euskal filologoa zara, eta Amaia Pina-cho ingeles filologoa. Estilo honetako beste lanik egin duzue lehenago?

Ez. Irakasleak gara, eta beste saltsa batzuetan sartuta gaude, baina honelakorik ez dugu inoiz egin. Onomastika eta ize-

nak landu izan ditugu karreraren zehar, baina toponimiari buruzko lehenengo lana Elgoibarkoa izan da. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiako kideak gidatu du gure lana, eta bere laguntzarik gabe oso zaila izango litzateke lan hau egitea.

Eta, nolako esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona izan da, pila bat gustatu zaigu lana, eta oso gustura geratu gara egindako lanarekin. Harreman oso ona izan dugu jende guztiarekin, eta herriarekiko sentimendu berezia piztu digu lanak. Lagundu diguten guztiei esker-rrak eman nahi dizkiet.

Hamalau hilabeteko lan honetan aurkitu duzue bitxikeriarik?

Bai, pila bat. Baserri edo lursail batzuen izenak barregarriak iruditu zaizkigu eta atentzioa eman digute. Horrez gain, anekdota asko bizi izan ditugu baserrietan. Behin baino gehiagotan irten zaizkigu txakurrak eta korrika alde egin behar izan dugu! Egia esan, oso ondo pasatu dugu.

Aste honetan jarri duzue zuen lana ikusgai. Zein da erakusketa horren helburua?

Batetik, bildu dugun guztia herritarrei erakustea nahi dugu, eta bestetik, herritarrekin *feedback*-a lortu nahi dugu. Hau da, herritarren ekarpenak jaso nahi ditugu. Norbaitek izenen bat gaizki jaso dugula edo gaizki kokatu dugula ikusten badu, guri jakinaraztea nahi dugu. Mapak egongo dira ikusgai erakusketan, eta norbaitek zerbait gehitu nahi badu, edo izenen batekin ez badago konforme, edo dena delakoa, esateko aukera izango du. Gure lana egiteko jende askorekin hitz egin dugu, baina hala ere, egon daiteke norbait toponimiari buruz asko daukana esateko eta jende hori gurekin harremanetan jartzeari nahi dugu. Zenbat eta hitz gehiago bildu, gure lanaren oinarria sendoagoa eta aberatsagoa izango da. Hamar egunez egongo da zabalik erakusketa, eta ia egunero hemen egongo gara. Bestela, Udaleko Euskara Sailarekin jarri daitezke harremanetan.

Zein izango da hurrengo pausoa?

Toponimo horiek arautzea izango litzateke azken lana, baina hori lan potoloa da, eta bortitza ere izan daiteke. Adibidez, baserriar batek bizitza guztian bere baserriari modu batean deitu badio, bi neskek beste modu batean deitu behar diola

esatea gogorra da, eta, seguruenik, ez da ados egongo. Bestalde, izen horiek herri-tarren artean zabaldu behar direla iruditzen zait, bereziki, gazteek ezagutu ditzaten. Azken batean, toponimo horiek ezagutzeak gure herria ezagutzen laguntzen du; gure nortasuna, nolabait esateko.

“**3.000 toponimo pasa batu ditugu, baina ezinezkoa da guztiak batzea**”

‘Izenak badu izana’ esaten da. Leku izenak biltzeari zein garrantzia ematen diozu?

Izenak nortasuna ematen du. Gu ez gara Elgoibarkoak, baina hala ere, oso interesgarria iruditu zaigu lana. Guk zapatuetako Elgoibar ezagutzen genuen, eta, hori ere ez gehiegi. Egia esan, gutxi etortzen ginen Elgoibarrera. Toponimia lanari esker beste Elgoibar bat ezagutu dut. Orain askoz hobeto ezagutzen ditut Elgoibarko lekuen izenak Arrasatekoak baino. Nire ustez, kaleko jendeak ez die kaleko izenei hainbeste garrantzia ematen, baina baserriarrek, naturarekin gertuko harremana dutenek edo mendira joatea gustuko dutenek interes handiagoa agertzen dute toponimoetan. Hori nire uste eta iritzi pertsonala da.

Esperientzia ona izan dela aipatu duzu. Beste herriren bateko toponimia aztertze-ko aukera izango bazenu, egingo zenuke?

Bai, baina ez orain. Elgoibarko lana oraindik erabat bukatu gabe daukagu, eta seguruenik, maiatza alderako amaituko dugu. Gero, atsedean apur bat hartuko dugu. Honelako beste lan bat hasi aurretik denboran tarte bat utzi behar da.

‘Entzun, eztabaidatu eta ikasi’ izenburuko hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondo paisajistak astelehenean

Okil Beltzak taldeak ekarriko du, herri batek garatzeko zer egin dezakeen azaltzeko

Okil Beltzak taldeak Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961) izen handiko paisajista eta agronomoa ekarriko du datorren astelehenean, hilaren 21ean, Elgoibarrera. Euskadi Irratiko *Landaberi* saiotik ezagutuko duzue askok Errekondo, baina Zeraingo garapen teknikaria ere bada azkeneko hamasei urtean, eta hain justu ere, Zeraingo garapen politikaz hitz egingo du, uste baitu politika hori lagungarria izan daitekeela beste herri batzuetarako ere. Hitzaldia Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:15etik aurrera.

Estreinatuta berri duen blogean eman du hitzaldiaren gaineko berri Okil Beltzak taldeak (<http://okilbeltzak.blogspot.com>) zabalago. Blog horretan zehazten dutenaren arabera, Jakoba Errekondoren hitzaldiak bi ardatz nagusi izango ditu: “Batetik, poligono industrialik gabe aberastasuna mantentzea posible dela azalduko du; are gehiago, poligonoak diru zuloa direla diru iturria baino gehiago; eta, bestetik, etorkizuna zerbitzuen sektorean dagoela esango du”. Antolatzaileek diote Errekondok herrigintzan daukan eskarmentutik ikasi nahi dutela, Elgoibarren Zeraingo ereduak aplikatu daitezkeen ikusi, eztabaidatu eta hausnartzeko.



Uxue Alberdiren taldeak irabazi du Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa



Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finala jokatu zen zapatuan Villabonako Behar-Zana Elkartean. Finalerako Donelutxi (Onintza Enbeita, Ainhoa Agirrezaldegi eta Uxue Alberdi) eta Donelontxo (Jokin Labayen, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa) taldeak sailkatu ziren, eta buruz buruz jardun zuten, 140 lagunen aurrean. Maila handiko saioa eskaini zuten, eta jendeak inoiz gutxitan bezala egin zuen barre eta txalo saio osoan zehar. Donelutxi taldea nagusitu zen azkenean, baina emaitza oso berdindua izan zen (Donelutxik 71 boto, eta Donelontxok 57).

EHUko Euskara Zerbitzuburu izendatu dute Jesus Mari Makazaga elgoibartarra

Jesus Mari Makazaga (Elgoibar, 1965) euskaltzain urgazlea EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuburu izendatu berri dute. Euskal filologian doktorea da Makazaga, eta egun, EHUko Euskal Filologia sailean dihardu irakasle, Farmazia fakultatean. EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendari izaki, zerbitzu horretako bi taldeen lanak koordinatu behariko ditu: batetik, itzultzaile-interpretetza, eta bestetik, talde akademikoarena.

Euskara Zerbitzuaren eginkizunak era askotakoak dira: administrazio-testuak itzuli, ekitaldi ofizial batzuetan interpretelanak egin, EHUko irakasle eta langileei hizkuntza-prestakuntza eta aholkularitza eskaini, unibertsitate-mailako eskuliburuaren argitalpena sustatu, haien euskarakalitatea zaindu, zientzia-dibulgazioko liburuak argitaratu, unibertsitateko hiztegi-gintzaren eta terminologiaren normalizazioan lan egin, EHUko Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko probak antolatu...

Iker Maiorak Espainiako maratoni txapelketa irabazi du, taldeka

Goierri Garaia taldean dihardu atleta mendarorak

Iker Maiora korrikalari mendarorak Espainiako maratoni txapelketa irabazi du taldekako kategorian, Goierri Garaia taldearekin. Orain dela bi urte ere irabazi zuen txapelketa Goierri Garaia taldeak, eta iaz ere garaipena gertu izan zuten, baina bigarren postuan geratu ziren. Aurten, baina, talde lan ona egin zuten, eta gainerako taldeak gainditu zituzten. Bakarka, 36. postuan amaitu zuen lasterketa Maiorak, 2:31:54 denborarekin. Irabazlea Daniel Abera Wedajo etiopiarra izan zen, eta errekor berria ezarri zuen, gainera, 2:09:54 denborarekin.



Zapatuan Alkorta taldea animatzera joateko eskatu du Sanlok

Alkorta senior mutilen taldeak partida garrantzitsua jokatu du bihar Donibane-koren kontra, eta Sanloko arduradurek animatzera joateko deia egin dute eskubaloi zaleei. Partida hori irabaztea ezinbestekoa da elgoibartarrentzat, igoera fasea jokatu ahal izateko.

Une latzak bizi ditu Haundik, Gasteizko Aurreraren kontra galdu ostean

Sailkapeneko azken postuetatik aldentzeko partida garrantzitsua zeukan Haundi taldeak joan den asteburuan Gasteizen, Aurreraren kontra, baina elgoibartarrek 2-0 galdu zuten, azken sailkatuaren kontra. Sailkapenean Haundiren aurretik dauden hiru taldeen emaitzek apur bat arindu dute porrot honen ondorioa, baina hala ere, gogor borrokatu beharko dute Fernando Loiolaren mutilek jaitsiera postuetatik irten eta mailari eusteko

EMAITZAK

FUTBOLA

Aurrera Vitoria 2 – Haundi 0 (3. maila)
Zestoa 0 – Elgoibar 1 (Pref.)
Elgoibar 2 – Antiguoko 0 (Jub.)
Tolosa 3 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Elgoibar 5 – Mutriku Txiki 0 (Kad. B)
Lagun Onak 1 – Elgoibar 2 (Ohozezko inf.)
Bergara 2 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki.)
Elgoibar 4 – Amaikak Bat-Mutriku 8 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Eskoriatza 22 – Lagunak 11 (1. mailako nag.)
Azkoitia 0 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Antiguako 2 – Lagunak 22 (1. mailako jub.)
Lagunak 22 – Euskal Jolas 2 (2. mailako kad.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 – Bergara 16 (Kad.)
Lagunak 22 – Eibar 7 (Nag.)

Pala

Usurbil 15 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Meatzari 6 – Concepto Createch Elg. 1 (1. maila)

ESKUBALOI

Ordizia 29 – Alkorta Elg. 31 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 16 – Arrate 16 (Inf. neska.)
Tecnifuelle Elg. 25 – Muskiz 17 (Jub. neska.)
Errotaberri 22 – Grupo Eibar Elg. 26 (Jub. neska.)
Errotaberri 30 – Lauko Elg. 24 (Kad. nsk.)
Sanlo 0 – Arrate 12 (Aleb. mt.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 9

12:30 Lanbroa – Idiazabal (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19

16:30 Haundi – Baskonia (3. maila)
18:30 Elgoibar – Getariako Keta (Erreg.)
13:00 Elgoibar – Kostkas (Inf. Txiki)
Domeka, 20
11:30 Elgoibar – Allerri (Kad. B)

ESKUBALOI (Kiroldegian)

Zapatua, 19

11:15 Astigarraga Elg. – Aiala Zarautz (Inf. neska.)
12:30 Bankoa Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
18:00 Alkorta Elg. – Donibane (Sen. mut.)
19:30 IMH Elg. – Ereintza (Kad. neska.)


PILOTA

Berixakua, 18

21:15 Lagunak – Bergara (2. mailako nag.)
22:00 Lagunak – Eskoriatza (1. mailako nag.)
22:30 Lagunak – Murumendi (1. mailako nag.)
Domeka, 20
11:00 Lagunak – Loiolatarra (Pala)
11:30 Lagunak – Alde Zaharra (Pala)

Andaluziako Itzulia jokatu du Beñat Urain mendarorak, denboraldiko estreinako proba

Domekan, hilaren 20an, hasiko du denboraldia Beñat Urain txirrindulariak, Andaluzian. Hirugarren urtea du profesionaletan, Orbean, Euskaltelen harrobiko taldean, eta "sasoi onean" doa Andaluziako Itzulia jokatzera. Astebete egingo du Andaluzian. Domekan hasi eta eguenean, hilaren 24an, amaituko da Andaluziako Itzulia, eta ondoren, Almeriako Klasika jokatu du, hilaren 27an. Denboraldi hasierako urduritasunak gainditu, eta bere onena ematera joango dela aitortu du txirrindulari gazteak.



LANA

ESKAERA

- Emakumea sukalde laguntzaile, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. **☎ 608 474 923**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutegi. **☎ 699 609 190**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. **☎ 678 972 694**
- Neska edozein lan egiteko prest. **☎ 634 007 292**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. **☎ 646 821 678**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest. Erizain laguntzailea, esperientziaduna. Arratsaldez edo pare bat ordutz. **☎ 685 729 790**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Gauzez edo egunez. **☎ 685 212 060**
- Gizona txofer edo igeltsero lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. **☎ 671 343 612 / 943 531 931**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernan platerak garbitzeko edo sukaldean laguntzeko. Nagusiak ere zainduko lituzke. **☎ 671 343 612 / 943 531 931**
- Neska eskaintzen da adinekoak nahiz haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo dendan lan egiteko. **☎ 662 267 569**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. **☎ 650 152 866**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. **☎ 634 042 115**
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egiten edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. **☎ 618 163 061**
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest. **☎ 606 226 827**
- Neska eskaintzen da lanerako. Edozein lan egiteko prest. Orduetegi malgua. **☎ 646 977 562**

- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. **☎ 686 234 612**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz edo orduka. **☎ 698 390 818**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Gauzez lan egiteko prest. Papelak ditut. **☎ 699 813 826**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Papelak ditut. **☎ 619 915 990 / 635 313 375**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **☎ 610 545 505**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... **☎ 696 450 343 (Kelvin)**
- Gizona pintore lanetarako prest. **☎ 610 017 571**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbitzaile, edo umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. **☎ 608 474 923**
- Emakumea sukalde laguntzaile, edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. **☎ 681 178 842**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... **☎ 648 716 291 (Williams)**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... **☎ 649 086 057 (Cristian)**

ESKAITZA

- Neska behar da zapatuetan zerbitzari lanak egiteko. Esperientziaduna. **☎ 666 579 609**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea hartuko nuke alokairuan. **☎ 685 212 060**
- Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **☎ 652 446 228**
- Pisu bila nabil Elgoibarren. **☎ 608 474 923**
- Etxea salgai Mendaron. Hiru logela, sukalde-jangela, komuna eta balkoi handia. **☎ 943 033 493 / 628 033 993**
- Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan. **☎ 664 705 888**

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukalde, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. **☎ 688 658 183**
- Etxea salgai Urasandin. Hiru logela, bi komun, egongela handia, sukalde eta trastelekua. Egoera oso onean. Eguzkitsua eta bista onak. **☎ 628 525 471**

PARTIKULARRAK


- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **☎ 943 744 206**
- DBH titulua eskuratzeko eskola partikularrak behar ditut. Ingeles, gaztelera, euskara, matematika, fisika eta kimika klaseak jaso nahiko nituzke. **☎ 650 800 621**
- Hegaldi laguntzaile klaseak ematen dira Bilbon, 18 eta 30 urte artekoentzat. Neskek, 1,65 metroko altuera izan behar dute, eta mutilek 1,70 metrokoa. Lan mundurako aukerak. **☎ 944 793 358**
- LHko eta DBHko klase partikular individualizatuak ematen ditut. **☎ 665 759 858**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. Prezio onean. **☎ 605 705 389**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. **☎ 672 422 237**
- Garaje marraduna alokatzen dut San Roke 5ean. **☎ 943 741 837**

BESTELAKOAK

- Bikotearentzako ohea erosiko nuke, somierra eta koltxoia. **☎ 697 282 539**
- Artzai txakur alemaniarra eta mastin nahasketako 2 urteko txakurarentzat eme bila gabilta, estaltzeko. **☎ 685 718 414**




ESKERTZA

PAQUI MIERA DIAZ

2011ko otsailaren 15ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

KONTXITA GARATE GURRUTXAGA

2011ko otsailaren 11n hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Maddi**, atzo 8 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Iraia**, gaur 3 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ibon**, zure laugarren urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Noraren eta Koldoren partez.



• Zorionak, **aititza!** Betetzen duzun urte bakoitzeko, gehiago maite zaitudala konturatzen naiz. Emango dizkizut 76 muxu Elgoibarrera joaten naizenean. Nahia.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

ESKERTZA

JESUS GARAIALDE MUGERZA

2011ko urtarrilaren 31an hil zen, 54 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

“Beti gure bihotzetan egongo zara”

Zure emaztea, semea eta gurasoak.



ESKERTZA

BEATRIZ AYESTA ALBIZU

2011ko otsailaren 4an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

SEBASTIAN ETXEBERRIA AGOTE

“Ballibar”

2011ko otsailaren 11n hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JOSEFA MUGURUZA ARTETXE

2011ko otsailaren 12an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



18 barixakua

Musika

22:30 Balerdi Erdi
Kultur Etxeko sotoan.

19 zapatua

Jaiak

12:00 Motxaila Eguna
Mendaroko Lizarrola baserrian elkartu, eta Aitzbeltz kobazulora abiatuko dira. Han, poesia emanaldia eta musika saioak izango dira. 16:30ak aldera Inoxentzioren emanaldia eta kantore flamenkoaren saioa. 19:30ean bertso poteoa Jokin Uranga, Beñat Lizaso eta Fredi Paia bertsolariekin.

20 domeka

Tailerra

10:00 Familia konstelazioak
Eduardo Ibarriak familia konstelazioei buruzko tailerra emango du Kemen belar dendan. Izena emateko 943 744 031 telefonora deitu.

Irteera

10:00 Xoxotera irteera
Ikastolako guraso taldeak antolatuta, Xoxotera egingo dute irteera.

Antzerkia

16:30 'Izarrak'
Paraiso teatroak *Izarrak* antzezlan taularatuko du. Herriko Antzokian.

21 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra
Mesopotamiari buruzko arte tailerra antolatu du Haizeak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Hitzaldia

19:15 Jakoba Errekondoren hitzaldia
Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista usurbildarrak hitzaldia eskainiko du, Okil Beltzak taldeak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra
El Quijote liburuari buruzko literatura tailerra antolatu du Haizea emakume taldeak. Udal liburutegian.

24 eguena

Mahai ingurua

19:00 '...eta orain, zer?'
Arnaldo Otegiaren aldeko plataformak mahai ingurua antolatu du. Herriko Antzokian.



Ostiralero,
mailegu zerbitzuari esker, bazkideek jolas bat eraman dezakezue etxera!
50 jolas baino gehiago ditugu!

Martxoaren 8rako
emakumeei eskainitako bideo bat grabatu nahi dugu. Utzi zure proposamenak tuentín edo gaztelekuko iradokizun kutxan.



B
BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea

OKINDEGIA

20 domeka FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

18 Etxeberria (*Santa Ana*)
19 Fernandez
Goizez, Garitaonandia-Bidasolo
20 Fernandez
21 Yudego
22 Zabaleta
23 Etxeberria (*Errosario*)
24 Ibañez
25 Garitaonandia-Bidasolo

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Tres metros sobre el cielo»

18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:00/22:15
20, domeka: 19:00
21, astelehena: 21:30



«Tres metros sobre el cielo» Espainia, 2010. Zuzendaria: Fernando González Molina. Aktoreak: Mario Casas, María Valverde, Álvaro Cervantes, Marina Salas, Diego Martín. Iraupena: 118 min. Kontrajarritako bi mundutako bikote gazte baten maitasun istorioa da. Ezinezko harremana maitasun bidaia zirraragarrian bilakatuko da, eta lehenengo amodioaren indar sinistezian aurkituko dute.

«Los dos caballos de Genghis Khan»

(Ongarri zinekluba)
24, eguena: 21:30

«Los dos caballos de Genghis Khan» Alemania, 2009. Zuzendaria: Byambasuren Davaa. Aktoreak: Uma Chahar-Tugchi, Chimed Dolgor, Hicheengui Sambuu. Iraupena: 90 min. Promesa batek, gizon zahar batek, bibolin batek eta ahaztuta zegoen abesti batek Mongoliara eramango dute Uma abeslaria. Amonari egin zion promesa betetzeko ordua dela erabakiko du Umak.



2011ko gida komertziala argitaratu dugu!



**Elgoibarko eta Mendaroko telefonoen gida gaur,
BARREN astekariarekin.**

MAHAI INGURUA

...eta orain zer?



**MARIANO
FERRER**
(kazetaria)



**JONE
GOIRIZELAIA**
(Arnaldo Otegiaren
abokatua)



**XABIER
ARZALLUZ**
(EBBko
lehendakari ohia)



**MARTXELO
OTAMENDI**
(BERRIAKO
zuzendaria)



**HASIER
ETXEBERRIA**
(moderatzaila)

**ELGOIBARKO
HERRIKO ANTZOKIAN
OTSAILAREN 24an,
OSTEGUNA, 19:00etan**

Internetez zuzenean: www.arnaldotegi.com



**ARNALDO ASKATU
POLITIKA ASKATU**

ARNALDO ASKATU
HERRI EKIMENA